


XL. TRAVESÍA DE ESQUÍ DE MONTAÑA EMF 2018 EMFren XL. MENDIKO ESKIKO ZEHARKALDIA 2018



euskalmendizalefederazioa

PANTICOSA MARTXOAK 18 DE MARZO PANTICOSA

EMFk antolatzen duen mendiko eskiko zeharkaldi ospetsuaren 40. edizioa izango da aurten. Panticosako Bainuetxearen inguruan egingo da. Foratulas gailurrera igoko gara (2.588 m), hiru milako mendiz inguratuta dagoen mendi-tontor eder horretara, hain zuzen.



EGITARAUA

LARUNBATA, MARTXOAK 17

- ⊗ 17:00 - 20:00 Ongietorria eta materialaren kontrola.
La Fajuala zentroa (Panticosa)
- ⊗ 18:00 Nibologiari buruzko hitzaldia Eduardo Gonzálezen eskutik.
La Fajuala zentroa (Panticosa)

NAHITAEZKO MATERIALA

- Eskiak, zeharkaldiko finkagailuekin.
- Eski-larruak.
- Hortz irristezinak.
- Pioleta eta kranpoiak.
- ARVA, pala eta zunda.
- Kaskoa.

IGANDEA, MARTXOAK 18

- ⊗ 07:30 Nahitaezko materialaren kontrola.
- ⊗ 08:00 Irteera.
- ⊗ 14:30 Herri-bazkaria Quinta Vista aterpean, Pueyo de Jacan.

Larunbatean, 17:00etatik 20:00etara bitartean, antolatzaileek harrera egingo diete parte-hartzaileei, materialaren kontrola egiteko. Ezinezkoa bada, probaren egunean bertan egingo da kontrola, proba hasi baino 30 minutu lehenago.

ARAUDIA

Mendiko Eskiko Zeharkaldi honetan, **urte honetako federatu-lizentzia duten mendiko eskiatzaile guztiek** parte hartu ahal izango dute. Proba-egunaren aurreko arratsaldean eta zeharkaldia hasi aurretik egiaztatuko da materiala, eta, parte-hartzailearen batek zehaztutako material guztia ez badu, ez zaio ofizialki parte hartzen utziko.

XL. TRAVESÍA DE ESQUÍ DE MONTAÑA EMF 2018 EMFren XL. MENDIKO ESKIKO ZEHARKALDIA 2018



euskalmendizalefederazioa

PANTICOSA MARTXOAK 18 DE MARZO PANTICOSA

Ibilbidea behar bezala balizatuta egongo da. Kontrolak ezarriko dira, antolatzaileei beharrezkoak iruditzen zaizkien tokietan. Proba utzi behar izanez gero edota beste gorabeheraren bat gertatuz gero, ezinbestekoa izango da horren berri ematea aipatutako kontrol-puntu horietan. Kontrol guztiak antolatzaileekin eta sendagile taldearekin (anbulantzia) komunikatuta egongo dira. Ibilbide osoan, partaide guztien atzetik joango da patruila bat. Antolatzaileek, kontrolen bidez, eskubidea izango dute zeharkaldiaren edozein puntutan parte-hartzaileei proba utz dezaten gomendatzeko.

Antolatzaileek eskubidea izango dute ibilbidea aldatzeko edota zeharkaldia bertan behera uzteko, eguraldiak edo elurraren egoerak horrela gomendatzen badute. Antolatzaileek ez dituzte beren gain hartuko parte-hartzaileek izan ditzaketen kalteak edo hirugarrenei eragin diezazkieketenak, federatu-lizentziak estaltzen baititu horiek.

Federazioko kideen laguntza jasoko da une oro, eta sendagile talde bat izango da zenbait kontroletan eta zeharkaldiaren amaieran. Parte-hartzailearen batek ARAUDI honetako punturen bat betetzen ez badu, zeharkalditik kanpo geldituko da, antolatzaileen erabakiz.

Meteorologia aldekoa ez bada, beste ibilbide bat egingo da, hau da: pasabide horizontalera iritsi ondoren, berriro jaitsi egingo dira, edota ibilbide zirkular bat egingo da segurtasun-eremuan.

IZEN-EMATEA 20 €

Prezioan hauek sartzen dira: ongietorriko poltsa (piknika, informazioa, opariak...), hitzaldia eta herri-bazkaria.

Ostatua ez dago prezioan sartuta (Pueyoko aterpean, Casa de Piedran eta abar har daiteke ostatua, aurrez erreserba eginda).

Izena www.rockthesport.com helbidean eman behar da. **Martxoaren 11n** amaituko da **izena emateko epea**.

GEHIENEZ ERE 80 PERTSONAK PARTE HARTU AHAL IZANGO DUTE